

MATXIN IRABOLA: IRUDI BAITZUEN PITONISA...



Matxin Irabola bertso kantari 1933ko Aberri Egunean, Donostian.
Argazkia: Pascual Marín.

Martin Irabola senpertarra bere garaiko bertsolaririk estimatuenetakoa izan zen. 1933an Donostian ospatutako Aberri Egunean 35 000 lagunen aurrean kantatu zuen. 1935ean, bigarren saria irabazi zuen lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusian, Iñaki Eizmendi “Basarri”ren atzetik. Ez zekien ez irakurtzen ez idazten, baina, [Piarres Lafitteren](#) hitzetan, “[hartze](#) gaitza” zuen. Matxinen beste ezaugarri bat ere aipatzen du Lafittek: “Kantatzean, haren gorputza ikara batean sartzen zen, irudi baitzuen pitonisa...”. (1)

Pariseko Sorbona unibertsitateko Marcel Jousse irakaslea Ipar Euskal Herrira etorri zen 1931. urtean, bertsolarien mundua ezagutzeko asmoz, eta, Matxin kantuan ikusi zuelarik, harrigarria egin zitzaion haren etorria. Aurrerantzean, inspirazioaz eta bat-batekotasunaz ari zitzairela ikasleei, Joussek sarri aipatzen zuen Martin Irabola. Behin, bertsoa nola sortzen zitzaion galdetu omen zion. Eta Matxinek erantzun, frantsesez zekizkien hiruzpalau hitzekin: “Zer esango dizut ba, nik ez dakit nola etortzen zaidan bertsoa”. Eta eskua bularrera eramanez: “Hau mintzatzen denean, orduantxe hasten naiz ni ere”. Beste egun batean, bertso-saio batean, biak elkarren ondoan eserita zeudela, irakasleak besoa ukitu zion eta dardarka zegoela antzeman zuen. Eta Matxinek: “Beldur naiz, ez dakit honek zer errango duen zutitzeko eskatzen didatenean”. “Hori da, hori da inspirazioa!”(2), esaten zien Joussek Sorbonako bere ikasleei.



1933ko Aberri Egunean bildutako jendetza.
Argazkia: Pascual Marín.

ERREFERENTZIAK

1. LAFITTE, Piarres (1974): «Bizpahiru orroitzapen lehengo bertsolariez», *Zeruko Argia* 600: 9.
2. BEAUPÉRIN, Yves (1995). «Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son oeuvre, son actualité», *Euskera* 40: 87-108.

IRUDIAK

KUTXATEKA / Fondo Marín / Marín, Pascual.  Lan hau [Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) baten mende dago.